

17.zk
2004

De

editor

MONOGRAFIKOA: Lanbide Heziketa Nafarroan.

Lanbide Prestakuntza

Javier Marcotegui Ros, Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakaria.

Zorionez, jada jende gutxi pentsatzen du hezkuntza ez dela giza kapitalean egiten den inbertsioa, eta egin daitekeen inbertsiorik onena. Orain dela ez hainbeste urte, gutako batzuek tinko esan ohi genuen hezkuntza ez zela gastu arrunta, inbertsio gastua baizik, nahiz eta zehazten genuen (eta halaxe egiten dugu gaur egun ere) hezkuntzaren aplikazioa eraginkorra izatea bilatu behar dugula beti, batetik, gastu horrek parekorik ez duelako eta, bestetik, baliabide erabilgarriak mugatuak direlako. Denborak arrazoia eman digu.

Inbertsio honek mota askotako fruituak ematen ditu; eta fruitu edo emaitza horiek modu ezberdinetara neur daitezke. Integrazioa eta sozializazioa dakartza, intelektualki gutxien doha indutakoei edo hezkuntza premia bereziak dituztenei bidezko prestakuntza ematen baitzaie. Solidaritatea eta kohesio soziala sortzen ditu, aukera berdintasunaren printzipioa aplikatzen baita. Ekonomiarentzat ere onuragarria da, amaierako ikasketetan edo lehen mailako, maila ertaineko edo goi mailako (unibertsitateko) lanbide heziketako ikasketetan gazteen gaitasunak erabat garatzea eta horiek ekoizpen sistemari modu eraginkorrean aplikatzea ahalbidetzen baitu.

Gizarteak egin dezakeen inbertsiorik onena, zalantzarik gabe, hezkuntzako gastua da, betiere dituen baliabideak mugatuak direla kontuan hartuta. Mendetan zehar, Nafarroak lanbide prestakuntzaren aldeko apustua egin du eta bere helburu politikoen artean beti lehentasuna eman dio biztanleen prestakuntzari. Lehen hezkuntzan inbertitzearen ondorioz, erkidegoko analfabetismo tasak Espainiako baxuenak izan dira beti eta haurren nahiz lehen hezkuntzako gaztetxoaren eskolatzeko maila %100ekoa izatera ere heldu da. Gauza bera gertatu zen Batxilergoarekin ere, zentro estataltak sortzen lagundu baitzuen; ezin ahoz dezakegu garai hartan hezkuntza sisteman irakaskuntza modalitate hau eskualde mailako azken urratsa zen, herrialde osoan 12 unibertsitate baino ez baitzeuden. Unibertsitateko hezkuntzaren alde ere egin zuen, ekimen ezberdinak abian jarrita: bere aurrekontuen bidez mantendu zituen

Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortu baino lehen zeuden unibertsitate eskolak; Nafarroako Unibertsitatea sortzeko eta garatzeko laguntza eman zuen; UNEDeko zentro elkartua mantendu zuen; eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortu zuen, eskualdeko legeetan oinarrituta Espainian sortu den lehenengo unibertsitatea. Zalantzarik gabe, epe luzerako inbertsioaren etengabeko politika hau aplikatu delako heldu da Nafarroa Espainiako eskualdeen garapenean lehenengo lekura eta Europako batezbestekoaren gainetik egotera.

Bereziki aipatu nahi izan dut Nafarroak lanbide prestakuntzan duen interesa, horri esker langileek prestakuntza tekniko handia lortu baitute. Hauxe izan da zehazki, eta halaxe da oraindik ere, inbertsoreek gehien baloratzen dituzten erreferentzia eta alderdie-tako bat.

Gainera, amaierako ikasketak edo lanbide prestakuntzakoak (gizarte moderno eta dinamikoan unibertsitate ikasketak goi mailako lanbide prestakuntzat hartu beharko litateke) tradizioz lanbide heziketako eskoletan eman izan dira. Gaur egun jada ez dira lehen hezkuntzaren eta unibertsitate hezkuntzaren artean dagoen fasea, eta ez dute gizarte egitura erreproduzitzen; lehen, langileek maila ertaineko edo behe mailako lanbide titulazioa izan ohi zuten eta buruzagiek, berriz, unibertsitate prestakuntza edo goi mailako lanbide prestakuntza. Jada gainditu den baloratzeko modu hartan, langileek bere seme-alabei unibertsitate prestakuntza eman nahi izaten zieten, gizartearen aurrera egiteko bide bakarra zelakoan, kontuan hartu gabe horretarako gai ote ziren edo ekoizpen egiturarako beharrezkoa ote zen. Garrantzitsuena titulua izatea zen, aurrera egin ahal izateko bermeztat ikusten baitzen.

Gurea bezalako gizarte batean (moderno, industriostekoa, zerbituetan oinarritua, dinamikoa, lehiakorra, eta hezkuntza askatasun, eraginkortasun, ekitate eta kohesio sozialaren printzipioen arteko oreka dela pentsatzen duena), unibertsitate titulak oso garrantzi gutxi du. Edozein titulu akademiko baino gehiago baloratzen da lanbide gaitasuna, alegia, une jakin batean ziurtatutako lanbide gaitasun eta kualifikazioak ekoizpen dinamiko eta aldakorren eskarierara egokitzeko norberak duen ahalmena. Gizarteak ez ditu titulak nahi, profesional trebeak baizik, zeregin eta eskakizun aldakorretara egokitzeko eta horien ardura hartzeko gai direnak. Horiek jasotzen dute aintzatespena eta horiek egiten dute gora.

Lanbide prestakuntzak berariazkoa eta osoa izan behar du; alegia, hasierakoa eta arautua izan behar du eta hiru mailak, hots, oinarrikoa, ertaina eta goi mailakoa (unibertsitatekoa) behar bezala orekatuta egon behar dute; langileei etengabeko prestakuntza eskaini behar zaie eta lanean hasiera doazenei, berriz, lanerakoa. Berariazko lanbide prestakuntza osoa da, hain zuzen, hezkuntza

s

eskolara

Aldizkari Berri-Emailea

Nafarroako Eskola Kontseilua

sistemaren gakoa eta, ondorioz, gizartea garatzea eta aurrera joatea egiten duen elementu nagusia.

Nafarroako Eskola Kontseiluak argitaratzen duen IDEA aldizkariaren ale honetan, lanbide prestakuntzaren alderdi ugari aurkezten dira: iraganaren oroitzapena, etorkizuneko ikuspegia, norberaren nahiak eta ahaleginak gizartean duen garrantzia, gazteek, enplegatuek eta, oro har, lan munduan sartu berriak diren pertsonen etengabeko lanbide prestakuntza osoa jasotzeko duten aukera, garapenaren arrazoia, e.a.

NAFARROAK XV. TOPAKETA NAZIONALETAN AURKEZTUTAKO PONENTZIAREN LABURPENA: "LANBIDE HEZIKETA ETA ENPLEGUA: BATERAKO ESPARRU BATERANTZ"

Javier Marcotegui Ros, Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakaria.

Nafarroa, bere Eskola Kontseiluaren bitartez, Autonomiatako eta Estatuko Eskola Kontseiluen XV. Topaketetan izan da. Topaketa horietan prestakuntza eta ekonomia aldetik garrantzitsua den gai bat jorratu da. "Lanbide Heziketa eta Enplegua: baterako esparru baterantz".

Nafarroak, IDEA aldizkari honetan azaltzen den modura, arreta berezia jarri du beti Lanbide Heziketan, 1927an hasi Salestarren Institutuan eta Antonio Aróstegui fundazioan, segi Nafarroako Lanbide Heziketako Institutuan eta Patronatuan eta, gaur egun, Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketako Zerbitzuaren bitartez.

Horrek azaltzen du 2002-2003 ikasturtean Nafarroan 26 lanbide-familietatik 19tako erdi-mailako eta goi-mailako zikloak eman izatea (erdi-mailako 32 ziklo eta goi-mailako 46 ziklo), horietan 3.562 ikasle matrikulatzea, 583 gehiago Gizarte Garantiako programetan, 107 Arte Plastikotako eta Diseinuko erdi-mailako eta goi-mailako heziketa zikloetan, 1004 ikasle Lanerako Prestakuntzan, 1422 Etengabea eta 588 Lanbide Heziketa eta Lanbideratzean eta (FIP plana), DBHko 4. maila bukatzen duten ikasleek %50ek Lanbide Heziketa aukeratzea (2003/2004 ikasturtea). Nafarroak Europako "Leonardo da Vinci" programetan parte hartzen du, lau proiektuekin, eta "Equal Ekimenean", batekin; bikain nabarmentzen da gainerako erkidegoekiko Europas-prestakuntza ziurtagiriaren kopurua.

2000ko uztailaren 3ko 247/2000 F.D.) Lanbide Heziketako Nafarroako Kontseilua sortu zen, eta urte bereko abenduan Lanbide Heziketako Nafarroako Lehenengo Plana onetsi zuen. Planaren helburu nagusia hau zen:

"Nafarroan baliabide publikoez finantzaturako lanbide heziketaren datozen lau urteotarako ildo nagusiak ezartzea, xede hirukoitz honi erantzuteko:

- Prestakuntza-eskaintzak enpresen eskaera errealelara egokitzea eta formula berritzaileen bitartez lanbide heziketan pertsona-kopuru handiagoa sartzea.
- Hasierako lanbide heziketako, lanerako prestakuntzako eta etengabeko prestakuntzako eskaintzen kalitatea hobetzea.
- Lanbide heziketa eta kalifikazioko sistema integratu eta koordinatuak garatzea eta lanbide orientazioa eta informazioa hobetzea".

Helburu hori ekintzetara eta emaitzen zehaztapenera bideratuago dauden hamarretan banakatzen da. Lau estrukturalak dira:

1. Lanbide heziketa eta lanbide kalifikazioen sistema integratua garatzea.
2. Erreferentziazko heziketa katalogo modularra ezartzea.
3. Zentro integratuen sare koordinatua sortzeko balio duten neurriak sustatzea.



Argazki-oina: Peraltako BHI-ko "Industri ekipamenduaren mantentze-lan"eko ikasleak

4. Lanbide orientabide eta informazioko sistema integratua ezartzea.

Bi, testuinguruaren azterketari buruzkoak:

5. Produktzio inguruneen lanbideetako kalifikazio-beharrak ezagutzeta.

6. Gune eta ingurune bakoitzerako prestakuntza-beharrak zehaztea.

Eta beste lauak eragiketa-helburuak dira eta 25 egitasmo garatzea dakarte:

7. Lanbide heziketako eskaintzen kalitatea hobetzea.

8. Ekipamendu eta instalazioetan inbertitzea.

9. Enplegu-politika aktiboetan sartutako lanbide-heziketako neurriak sustatzea.

10. Lanbide Heziketa berria zabaltzea.

Denen artean 25 egitasmo garatzea dakar.

2001-2004 urteotarako plan honetara 238,4 milioi euro bideratu dira. 2002 urtean, Lanbide Heziketara bideratutako baliabide publikoak 57 milioi eurokoak izan dira, 31 araututako lHrako, 3,6 Lanbide Hastapeneko Programetarako, 12,4 Laneratzeko Prestakuntzarako eta 10,3 Etengaberako. 110 euro biztanle eta urte bakoitzeko.

Nafarroa Kalifikazioen katalogo Nazionala egiten parte hartzen ari da, Energia eta Ura lanbide-familian. Xede horretarako, Nafarroan kokatuta daude Energia Berriztagarrietako Lanbide Heziketako Zentro Bateratua, Lanerako Prestakuntzako Zentro Nazionala eta Energia Berriztagarrien Berrikuntza eta Ikerketarako Zentro Nazionala.

Halaber, Nafarroak ERA proiektuan parte hartzen du (Lanbide gaitasunen ebaluazioa, aitorpena eta ziurtapena).

Informazio eta Orientazio sistema bat garatzea da Lanbide Heziketa garatzeko Planaren xede nagusia. Ildo horretan egindako ekintzak (F.F.ko feriak bi urtero, laneratzeari buruzko azterketak urtero, lan orientabidearen sarea, informazio eta orientabide puntu elkarrenergileak) modu positiboan ebaluatu zituzten Lankidetzeta eta Garapen Ekonomikorako Erakundeko adituek (OCDE).

Nafarroak Lanbide Heziketarako duen interesaren emaitzak oso onak dira, izan ere enpresa-munduak zein gizarteak berak baloratzen duTE emandako heziketaren kalitatea. Lanbide Heziketako ikasleek laneratzetasak %90 gaintzen du horien graduazioko lehen urtean, %16k kontratu finkoa lortzen du eta %55ek bere titulazioarekin bat datorren lanpostua lortzen du denbora-tarte horretan.

Azkenik, Nafarroak autoebaluazioan duen eskarmentua ekartzen du Jardunaldira, dagokion ziurtagiria lortzeko lanbide gaitasunen eskarmentua. 2003 urtean garatu zen, ERA proiektuaren baitan (Ebaluazioa, Aitorpena eta Ziurtapena); 44 eta langilek parte hartu zuten, eta horietatik 38k ziurtagiria lortu zuten.

SALESTARRAK-IRUÑEA 75 URTE GAZTERIAREN ZERBITZURA NAFARROA

Felipe Alcalde, "Salesianos" ikastetxeko zuzendaria.

Salestarrek Iruñean direla 75 urte bete direlarik, Gazteria Nafarrarari eskainitako zerbitzuaren historia aberatsaren ikuspuntutik erreparatu nahi diogu gure errealitateari, izan ere Nafarroa osoaren aitorpena ekarri du, 2001eko abenduaren 3an Foru Komunitatearen urrezko domina jaso baitu. Etorkizuna gure historiaren ildotik doa, eta bizitzea dagokigun orainean osatzen joaten da.

Hasiera

1927ko urtarrilean Iruñeko Lanbide Eskola Salestarra ireki zen. Zenbait urte lehenago, Salestarrek Iruñera etortzeko interesak bat egin zuen Antonio Aróstegui jaunak (Argentinan bizi zen), Almagroko (Argentina) eskola salestarra ikusi ondoren horrelako eskola bat bere lurralde Iruñean izateko gogoarekin, milioi bat pezeta ere emango lukeela adierazi baitzuen.

Hasiera hartatik bertatik, Lanbide Eskola eratu zen moduan barneko ikasleek, kanpokoek, erdi-pentsionistek eta batik bat herri-mailakoek zuten eskolan sartzeko aukera.

Barnefegi zerbitzua emateak Lanbide Heziketa Nafarroako bazter guztietara eta hurbileko zenbait probintziatar iristea eragin zuen.

Iruñeko Salestarretan ordutegiak "beteta" daude goizeko zortzietatik arratsaldeko zortzietara, hori kanpoko ikasleei dagokienez, eta barrukoei dagokienez, berriz, egune-

ko hogeita lau orduetan, eta ia oporrik gabe. Denbora asko dago tailerretan praktikatzeko, ikasgeletan teoria lantzeko eta ongi pasatzeko, jolastu, abestu eta antzerkia egiteko. Salestarren estiloan patioa, antzerkia eta ondoren zinema beti izan dira erreferenteak. Giroaren xedea da Eskola familia bihurtzea, ikasle eta irakasleen arteko adiskidetasun eta eskakizun estilo batez.


Familia-izpiritu honetan ulertu behar dugu, hain zuzen, Eskolan ikasketak jadanik bukatuak dituzten gazteek, industriaren munduan lehen urratsak ematen hasten direnek, Ikasle Ohien Elkarteak sortu izana. Elkarteak hainbat ekintza antolatzen ditu (kirola, mendia, antzerkia...), horiek pixkanaka indarra hartu eta hiri osoan itzal handikoak bihurtu dira, Boscos Saria, Boscos mendi-taldea eta bere garaiko Amadís antzerki-taldea.

Iruñea-Salestarretako hezkuntza jarduerak Salestarren Hezkuntza Proiektuari fidelki jarraitzen ahalegindu da. Hezkuntza horren ezaugarriak honakoak dira:

- Herri-mailako gazteei arreta berezia eskaintzea.
 - Aurrea hartzeko sistemaren aplikazioa, arrazoiaren, erlijioaren eta maitasunean oinarrituta.
 - Famili izpiritua gozatutako hezkuntza komunitatea sortzea.
 - Eskola esparru hertsitik haratagoko hezkuntza-alderdiak ere lantzea: otoiztegia, gazte zentroa, aisialdiko ekintzak (kirola, mendia, musika, antzerkia).
 - Ikasle Ohien Elkarteak sortu eta sustatzea, ikasleek ikastetxean emandako urteetan beren bizitza eratzen joan diren balore eta esperientzia positiboak "berriz bizitzeko".
 - Lanbide Heziketa beti eguneratu baten eskakizunei fidel jarraitzea.
- Hezkuntza eta teknologia mailako eskakizunetara egokitzearen ondorioz Iruñeko Salestarrek Nafarroako indus-



"Salestarren Ikastetxearen hasiapenak"



"Salesarren Ikastetxea gaur egun".

tzearen ondorioz Iruñeko Salesarrek Nafarroako industriaren eta gizartearen beharrei erantzuten joan dira.

Denbora aurrera joan ahala

Eskariak ikusita, zegokionean, eguneko heziketa arau-tuan Zurgintza, Mekanika, Arte Grafikoak, Elektrizitatea eta Elektronika espezialitateak emateaz gain, gaueko lanbide heziketa ere ezarri zen, Lanbide Heziketako beste ikasketetarako titulua eskuratu edo lantegi berean beste postu bat eskuratu nahi zuten langileentzat.

Lanerako prestakuntzako edo etengabeko ikastaroak ematen hasi zen, eta azken aldera ikastaroak "nahiera-ra" enpresentzat.

Salestarak-Iruñea aitzindaria izan zen, halaber, enpre-setako praktikak ezartzen. Betidanik izan da lan-poltsa eta harreman zuzena enprekin, hori guztia erraztu egin du horietan Ikasle Ohiak izateak.

Salestar Familia Handiak Nafarroaren industrializazioaren alde egindako lanaren esker onez Foru Komunitateak emandako Urrezko domina zela eta, Nafarroaren egun hartan esandako hitzetan adierazi bezala, Iruñeko Salesarra ahalegindu da harrera-ETXEA izaten, bizitzarako hezten duen ESKOLA izaten, komunikazioa, poza eta festa errazten duen PATIOA eta ebanjelizatzen duen ELIZA izaten.

Gaur eztaba daezina da Iruñeko Salestarak Nafarroaren industri garapenean izan duen eragina. Nolanahi ere, proiektuetan hain aberatsa izan den iragan eta orain honetarik abiatuta etorkizunean pentsatzen ari gara, izan ere gure gaur egungo errealitatearen jarraipena izatea nahiko genuke.

Etorkizuna

Denok dakigu gure ikastetxea hiriko edo eskualdeko beste toki batean kokatzea aztertzen ari garela.

Ikastetxea beste leku batean kokatzera bultzatzen gaituzten arrazoiak honela zehaztu ditzakegu:

- Egitura-mailako arrazoiak:

- Esparruak espezialitateetako erdi-mailako eta goi-mailako heziketa zikloetako modulu-zatiketaren beharretara hobeto egokitu eta banatzea.

- Eremu nahikoa hezkuntza kalitatea eta gaur egungo teknologiara egokitutako hezkuntza eskaintzeko.

- Eremuak kirol-ekipamenduetarako, gaur egungo beharrek eta gure hezkuntza estiloarekin bat datorrena (futbol-zelaiak, kiroldegi estalia...).

- Hezkuntza-mailako arrazoiak eta arrazoi pastoralak:

- Ikastetxea eta hezitzaileak gazteak dauden tokitik hurbil izatea erraztea.

- Inguruko nerabe eta gazteei hezkuntza integrala eskaintzea (eskola-denbora eta aisialdia estaltzen dituen hezkuntza-eskaintza eta eskaintza pastoralak dituen).

- Kirol esparru berriak eskaintzea eskola-jardueretarako, Ikasle Ohiak, Boscos Sarirako, ingururako.

- Ikastetxea eta bere instalazioak biztanleria gaztea den ingurune batera hurbiltzeko aukera ematea (gazteak baitira gure hezkuntza estilo eta eginkizunaren xede nagusia).

- Eremuak eskaintzea etengabeko heziketarako, lanerako prestakuntzarako edo enpresen prestakuntzarako.

Gure helburua da ikastetxe bat izatea bere kokalekua, hezkuntza-proiektua eta proiektu pastoralak direla-eta erreferente izaten jarraituko duena Nafarroako Gazte-riarentzat, hain zuzen ere urratsez urrats, urtez urte eta argi-itzalen artean joan diren 75 urteotan gaur egungo kokalekuan izan den bezala.

kasge

NAFARROAKO LANBIDE HEZIKETAREN PATRONATUA

Juan Andrés Ciordia Segura



Juan Andrés Ciordia Segura jauna

Gure Komunitatean Lanbide Heziketa modernoaren abiapuntua Iruñean Salestarren Lanbide Eskolak (1923-1927) abian jartzea izan zen, San Francisco de Salesen Elkartearen eta Antonio Aróstegui jaunaren oinordekoen arteko elkarlanari esker, eta Lanbide Heziketa hedatzea, berriz, Foru Aldundiak

Lanbide Heziketaren Patronatua sortzeak eragin zuen, zalantzarik gabe. Patronatuaren Sortze Gutuna 1946ko abuztuaren 14an izenpetu zen, Iruñean. Bi gertaera hertsiki lotuak.

Patronatuaren sustatzaileak animatu zituen helburua bere izenean bertan agertzen da. Hau da, ahalegin publiko eta pribatuak elkartuz, eta batez ere Aldundiarenak berarenak, gure hezkuntza sisteman oraindik ez zeuden irakaskuntza batzuk sustatzea -gaiari buruz 1924an eta 1928an emandako xedapen interesgarriak funtsean argitaratu gabe geratuak ziren-, irakaskuntza horien garrantzi ekonomiko eta sozialaz ondo jabetuta. Horretaz gain, berandutu gabe enpresari ekin nahi zitzaion, gudaosteko Espainia kolpatu eta isolatuak garai haietan jasan zituen eskasiak gainditzeko.

Foru erakunde berria jaio zen, 1928ko Lanbide Estatutu zaharraren babesean. Arau horren arabera, lanbide heziketa toki patronatuen bidez arautu behar zen, eta patronatu horiek arauan begietsitako edozein heziketa-mota (funtsean industri Maisutza eta Ofizialtza) zegoen edo ezartzen zen udalerrri guztietan sortu behar ziren. Hori horrela, Aldundiak Estatutuari heldu zion eta bere patronatua sortu zuen, eta bere osaera Erregimeneko postulatu politikoen arabera egin zuen, jakina. Aldundi eta Udaleko ordezkariak gain, patronatuan ordezkartza izan zuten, halaber, Foru Kontseiluak, Merkataritza eta Industri Ganberak, Ordezkartza Sindikalak, Industri Ingeniarien Elkargoak (1953tik aurrera), Aróstegui fundazioak eta Nafarroan zen lan eskola bakoitzak, eskola salestarrak barne.

Lehenengo zeregin gisa, Patronatuari Nafarroako lan eskolen antolakuntza, zuzendaritza eta administrazioa agindu zitzaion, eta helburu horretarako, Aldundiak eta San Francisco de Salesen Elkartek hitzarmena izenpetu zuten 1947ko urtarrilaren 3an. Horren arabera, Salesta-

rren Kongregazioak ikastetxe berriaren zuzendaritza teknikoa hartu zuen bere gain, eta Iruñeko bere eskolako lurrak eta eraikinak jarri zituen. Hilabete batzuk geroago eta Patronatuaren oinarri beraren gain, Foru Aldundiak eta Jesusen Konpainiak, San Francisco Javier higiezinaren sozietatearen bitartez, antzeko hitzarmena sinatu zuten Tuteran San José Oinarritzko Lan Eskolaz arduratzeko.

Hainbat gora-behera zirela medio, Nafarroako lan eskolak Iruñean kokatu behar baziren ere azkenean ez ziren eraiki. Nolanahi ere, horrek ez zuen eragotzi Aldundiak, Patronatuaren bidez, Eskola Salestarrei bere babes ematea; hori horrela, une horretatik aurrera, horien funtzionamendua ziurtatzeaz gain azkar eta asko hazten hasi ziren. Mekanika eta Egurraren adarrei Elektrizitatea eta Arte Grafikoa erantsi zitzaizkien, eta handik berehala baita Elektronika ere; eta eguneko irakaskuntzari gabezia; horretaz ehunka langile kualifikatu gabe baliatu ziren. Bestalde, Jesusen Konpainiarekin egindako hitzarmenean aurreikusitako lanbide eskola eraiki eta abian jarri zen Tuteran. Aldundiak eraiki zuen, Konpainiaren lurretan. Eskola horrek ingurune aurrerapen ekonomikoari egindako ekarpena erabakigarria izan zen.

Berrogeita hamarreko hamarkadatik aurrera Espainian hasi zen industrializazio prozesuak (hurrengo hamarkadan iritsi zen gehien garatzera) hezkuntza-sistema modernizatzea eta eguneratzea eskatu zuen, batik bat irakaskuntza profesional eta teknikoen arloan. 1955eko uztailaren 20ko Lanbide Heziketaren Legeak irakaskuntza hori sisteman sartu zuen, eta horren sustapena, gainerako mailena bezala, erakunde publiko eta pribatuaren esku utzi zuen, eta 1928ko Estatutuaren babesean sortutako patronatuak desagertzeko agindu zuen. Xedapen hori ez zen bete Nafarroan; bere Administrazioak ez zuen bere hezkuntza zerbitzurik, eta Patronatuak, berriz, Sortze Gutunaren arabera, Estatutuak emandako eskumenez gain Foru Aldundiak esleitzen zizkionak ere bazituen. Gure Patronatua ez zen desagertu, aitzitik, bere nagusitasuna indartu zuen Nafarroako Lanbide Heziketaren kudeaketa eta sustapen organo gisa.

Hain zuzen ere 1955ko Legearen ondoko urteetan, Aldundiak, Patronatuak proposatuta, Lanbide Heziketako azpiegitura foru lurralde osora hedatu zuen. 1957an, hark emandako txosten bat ikusita, Korporazioak ofizialtza eskolak Lizarran, Tafallan, Agoitzen edo Zangotzan eta Altsasun sortzea erabaki zuen (Agoitz/Zangotzakoa Irunberrin kokatu zen azkenean, eta Altsasun Estatutuak Lan Institutua sortu zuen). 1963tik aurrera, Elizondon, La Barranca, -egoitza Lakuntzan-, Leitza eta Beran. Eskolek egoitzak zituzten, eta horietan hasieran Mekanika eta Elektrizitate adarrak ezarri ziren, eta gero, berehala, beste adarrak gehitu ziren, hala nola, Elektronika, Administrazio adarra eta, batzuetan Maisutza gradua ere bai.

Iruñean eta Tuteran, eskolen zuzendaritza eta gobernu batik bat ardura eman zaien erakundearen esku gelditu zen, eta establezimendu berrietan, berriz, Patronatuak berak hartu zuen erantzukizun hori. Lan eskerga, delikatu eta konplexua eta gutxienezko antolakuntza-egiturarik

kasge

tu eta konplexua eta gutxienezko antolakuntza-egiturarik ez, baina zorionez aurrera eraman ahal izan zen ikasketeen zuzendaritza hasiera hartan euren esku hartu zutenen eskuzabaltasun eta ontasunari esker, eta, bereziki, horien animatzaile argi eta nekaezin izan zen Antonio Sagaseta de Ilurdotz ingeniari eta apaizari esker. Nafarroak esker oneko zor ordaingaitza du berarekiko. Foru Korporazioaren baitan lehenik Industria Zuzendaritza eta batik bat gero Hezkuntza Zuzendaritza sortzeak organo horietara aldatu zituen ordura arte Patronatuak beteak zituen funtzioak, eta ondorioz bereizi egin ziren Patronatutik Iruñeko eta Tuterako eskolak, erakunde titu-

larrekin hurrenez hurren 1974an eta 1977an izenpetutako hitzarmen berrietan. Nolanahi ere, oraindik 1979an, Aldundiak erakunde zahar horri eusteko eta are indartzeko borondatea adierazi zuen; eta nolabait ere hori egin zuen, oso egitura eta osaera ezberdinarekin, urte hartan bertan izandako hauteskundeetatik sortutako Aldundiak, 1982an Lanbide Heziketaren Institutua sortuz. Horren Gobernu Batzordea eratzeak Patronatua behin betiko desagertzea ekarri zuen, baina kudeaketa-formula berriak ere ez zuen sendotzerik lortu, izan ere zortzi urte geroago, 1990ko uztailaren 31ko Foru Dekretuaren bitartez, Institutua kendu egin zen.

orod

LANBIDE HEZIKETA ARAUTUA NAFARROAN

Javier Navallas Rebolé, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketa Zerbitzuko zuzendaria.

Garatutako herrialde guztiek, edo ekonomia berrian kokapen hobea lortu nahi dutenek, heziketa eta lan kalifikazioa ekoizpen sektoreen beharretara eta langileen haziera pertsonalera egokitzeko sistemak bultzatzen ari dira. OCDE, Mercosur, EEBB eta Kanada, eta, jakina, Europako Batasuna, aldaketa estrategikorako elementuak sartzen ari dira lanbide heziketako sistemetan. Nafarroan, azken urteotan hasiak gara posizio aurreratuetara hurbiltzen, beste hainbat herrialde, hala nola Holanda, Alemania, Finlandia edo Danimarka, egiten ari direnaren ildoan.

Lanbide Heziketa arautuaren arloan Hezkuntza Departamentuaren ekintza hiru jarduera-esparrutan zentratzen ari da:

Lehenengoa: Enpresa, kualifikazioa eta enplegua

Lehenik eta behin, heziketa sistemak lanbideetako kalifikazio-eskakizunei modu dinamiko eta zentzuzkoan erantzutea, hori guztia gizabanakoek beren prestakuntzarako duten eskubidearekin orekatuz. Alde horretatik, uste dugu garrantzitsua dela lanbide heziketako sisteman jarrerak eta gaitasunak sustatzea biziizan zehar etengabeko ikas-kuntza eratu ahal izateko.

Lehenengo jarduera-esparru honetan enpresa txiki eta ertainen lanbide heziketako eskakizun espezifikoak ematen zaizkien erantzuna nabarmentzen da, dedikazio berezia eskaintzen baitzaie, batez ere kalifikazioa anitzagoa

sustatzeari dagokionez. Gogorarazi behar da Nafarroan enpleguaren erdia baino gehiago 50 langile baino gutxiagoko enpresetan gauzatzen dela.

Bestalde, prestakuntzan enpresaren parte-hartzea zabal-tzen ari da. 2003-2004 ikasturtean 1300 enpresatik gora elkarlanean ari dira Lanbide Heziketako ikasleen lantokiko prestakuntzan eta profesional espezialistak Lanbide Heziketako ikastegietan zuzenean esku hartzen ari dira heziketa osatzeko eta enpresaren esperientzia helarazteko.


Bigarrena: Kalitatea hobetzea

Bigarren jarduera esparrua enplegu politika aktiboekin eta pertsonen lanbide sustapenarekin kalitatezko lanbide heziketa eratzea da. Prestakuntza-eskaintzen hobekuntza eta berrikuntza eta prestakuntza-eskaintza horietara ahalik eta gazte, langabetu eta langile gehien heltzea ardatz estrategikoak dira lanbide heziketako sistemak modu orekatu eta koherentean eraikitzeak.

Une hauetan, lanbide heziketako tituludunen %90ek baino gehiagok ikasketak bukatu eta urtebeteko epean aurkitzen dute lana. Hori horrela, laneratze-tasa horri eutsi eta ikasketa horiek bukatzen dituzten ikasleen lan aukerak eta kalifikazioa hobetu nahi da.

Duela zenbait urtetik aurrera kalitatea hobetzeko egiten ari diren ekintzak honako hiru atal hauetan antolatzen dira:

1. Lanbide heziketako eskaintzak ekoizpen ingurunearen beharretara eta gizarteak eskatutakora egokitzea eta planifikatzea. Une hauetan, Nafarroan lanbide heziketa egiten ari da Derrigorrezko Irakaskuntzaren Ondoko irakas-kuntzetako bi ikasleetatik bat, eta joera nagusia Europako herrialde aurreratuenetan gertatzen denaren ildotik doa.



Lanbide Heziketako ikasleak praktiketan

Ikasle batek, gaur egun, 78 titulazio ezberdinen artean aukeratu dezake (erdi-mailako eta goi-mailako zikloak).

2. Kalitatea hobetzeko bigarren ekintza, bereziki landu dena, lanbide heziketako ikastegietan ekipamendu eta instalazioetan inbertitzea da. Europako gomendioek alderdi hori azpimarratzen dute irakaskuntza haren kalitatea bermatzeko, eta alderdi hori enpresetarako teknologia estrategikoetan prestatzera bideratu da. Zehazki, inbertsioa egiten da fabrikazio-sistema malguak eskuratzen, teknologia informatikoetan eta telekomunikazioetan, didaktika berrietara egokitutako kalitatezko ekipamenduetan, ikastegietako lantegi eta instalazioetako segurtasuna hobetzen, eta, jakina, Nafarroako enpresek eskatzen dituzten kalifikazio berriei lotutako ekipamendu, makina eta tresnak eskuratzen.

3. Kalitatea hobetzeko hirugarren ekintza lanbide heziketaren Europako proiektioan zentratzen ari da. Lanbide Heziketarekin zerikusia duten Europako erakundeekin lankidetzaproiektu instituzionalak, irakasleen egonaldia Europako enpresetan eta ikasleek atzerriko enpresetan praktikak egitea gaur egun garatzen ari diren berriazko ekintzak dira.

HIRUGARRENA: LANBIDE HEZIKETAREN EREDU BERRIA. LH ETORKIZUNERAKO

Hirugarren eta azken jardura-esparrua aurrekoak ez bezalakoa da. Irismen handiagoa du eta lanbide hezike-

taren sistemako egiturei berei eragiten die. Berriz ere, esparru hau honako ekintza estrategiko hauetan bereiz dezakegu:

1. Lehenik, LHko Nafarroako Kontseiluak 2001ean egindako Lanbide Heziketako Nafarroako Plana garapen betean dago eta bukatu egin behar da

2. Egiturari dagokion bigarren ekintza Kalifikazio eta Lanbide Heziketaren Legetik eratorritako Kalifikazioen Sistema Nazionala Nafarroan abian jartzea da. Gaur egun, Lanbide Heziketako Zerbitzuaren Kalifikazioen Nafarroako Institutua Hezkuntza eta Kultura Ministerioarekin elkarlanean ari da Energia eta Uraren sektorean Katalogo Nazionala garatzen.

3. Azkenik, lanbide heziketako eredu berriarekin lotutako proiektu garrantzitsuak egiten ari dira. Lanbide heziketako ikastegi integratuak diseinatu eta garatzetik hasita (hasierako prestakuntza, lanerako prestakuntza eta etengabea eskaintzen dutenak), eskarmentuaren poderioz lortutako lanbide esperientzia ebaluatu eta aitortzeko prozedurak abian jarzera ino.

Bukatzeko

Lanbide heziketako sistemaren hobekuntza kualitatiboa lortzeko lantzen ditugun alderdietako batzuk honakoak dira: ikastegi integratuen antolakuntza eta garapen ego-
kia, informazio eta orientazio sistemen koordinazioa,

gaitasuna ziurtatzeko prozedurak abian jartzea edota Kalifikazio Sistema Nazionalaren funtzionamendua bera. Garatutako herrialde batek dagoeneko ezin du lehiatu lanaren prezioaren esparruan edota baliabide natural eta lehengaiak izatearen esparruan.

Bestalde, gaztearen ikuspegitik, Hezkuntza Departamentuaren mende dagoen lanbide heziketa arautuak beharrezko oinarri profesionala ematen die etorkizuneko profesional guztiei. Oinarri profesional horrek ez dio soilik kalifikazio teknikoari eragiten; aitzitik, pertsonen profesionaltasuna eraikitzen duen orientazio-elementu estrategikoa ematen du. Sarritan, gazte askok hasierako lanbide heziketako eskaintzetako batean eskuratutako kalifikazioaren bitartez aurkitzen dute zentzu pertsonala eta lanekoa helduen gizartean.

LANBIDE HEZIKETA ETENGABEA

Tomás Escriche Serrano

Garraioen eta komunikazioen aurrerapen ikusgarriak globalizazioaren fenomeno erraztu du, eta horren ondorioz, enpresek lehen merkatu berean ez ziren beste enpresa batzuekin lehiatu behar dute. Era berean, beren produktuak, banaketa-sistema modernoaren bitartez, lehen pentsaezinak ziren merkatuetan sartzen dira.

Horrek funtsezko aldaketak eskatzen ditu enpresen kudeaketan eta antolamenduan, eta, halaber, kalitatea hobetzea eta produkzio-kostuak ahalik eta gehien beharatu dituzten formula eta prozedurak bilatzea eskatzen du.

Lehiakortasunari eustea edo areagotu beharrak ondorio erabakigarriak izango ditu enpresaren aurrerapenari begira, eta enpresa behartuko du egunean izatera ekoizpen eta merkaturatze sistemetan, teknologia aldakor eta aurrerapen etengabekoaren modernizazioan eta lanaren barne-antolakuntzan, gaur egungo garaiekin bat.

Hala eta guztiz ere, horrek guztiak ez du ezertarako balio izango enpresak ez baditu profesional adituak, prestakuntza sendoa eta etengabe eguneratutako ezaguerak dituztenak eta, era berean, gai direnak ekimenak proposatzeko, arazoak konpontzeko, erabakiak hartzeko eta lan talde aldakor eta malguetan integratzeko. Profesional horien prestakuntzak, eta horiek etengabe egunean jarri beharrak, beharrezko egin du prestakuntzaren edukia eta sistemak sakon berrikustea, bai unibertsitatearen esparruan, baita lanbide heziketarenean ere.

Lanbide heziketakoari dagokionez, gure herrialdean aldaketa sakona gertatzen ari da hasierako prestakuntza akademikoan zein prestakuntza etengabe bizitza profesionalean zehar.

Beharrezkoa izan da lanbide heziketako titulazioak lehenik ordenatu eta egunean jartzea, eta lan-munduko eskarira eta aurrerapen zientifiko eta teknologikoaren eskaki-

zuetara egokitzea. Horretarako, Kalifikazioen Katalogo Nazionalekin egin da. Katalogo horrek, Katalogo Modularrekin batera, dauden lanbide-kalifikazio guztiak biltzen dituzte, eta titulazio horiek lortzeko beharrezkoak diren ezaguerak, modulu didaktikoetan egituratuta eta esleitzen zaizkien irakastorduen erreferentzia adierazita. Katalogoa osatu egiten da eskuratutako lanbide-gaitasuna eta xede dituzten lanpostuak zehaztuz.

Hasierako lanbide heziketa emango duten ikastetxeak irakaskuntza teknika modernoak aplikatzeko gai izango dira eta euren irakaskuntza teorikoak lantegi edo laboratoriorio propio edo hitzartutako praktikekin bateratuko dituzte. Irakaskuntzako profesional aditu eta eguneratutako ezaguerak dituztenek jardungo dute, ekoizpen ingurunearekin berrikuntza proiektuetan lankidetzan arituko direnak, eta beren sektoreko garapen teknologikoan aktiboki parte hartuko dutenak.

Baina lanbide heziketaren araudi berriak lanbide kalifikazioak lortzeko beste bide bat begiesten du. Bizitzan zeharreko prestakuntza eta eskuratutako esperientziaren ebaluazio eta ziurtapenaren sistema da. Horrela Europako Batasunaren ekimenari eta Batasuna osatzen duten herrialdeen erantzunari jarraitzen zaio.

Halaber, horrela langile guztiek duten eskubide bat betetzen da, alegia, langileek eskuratutako lanbide-gaitasuna aitortzeko eskubidea eta lanbide-gaitasun hori langileari mugikortasun funtzional eta geografikorako aukera emango dion ziurtagiri batean jasotzeko eskubidea. Modu horretan, aukera ematen zaio hasierako heziketako etapan lortu duen titulazioa gainditzeko eta lanbide kalifikazio berriak eskuratzeko.

Aukera horrek eskatzen du beharrezkoak diren heziketa moduluak pilatuz Katalogo Nazionaleko hurrengo titulazioetara heldu ahal izateko ebaluazio-sistema zorrotz eta fidagarria abian jartzea.

Gaitasunaren Lan Ziurtagiri agentziak beteko du eginkizun hori. Heziketa zentroetako eta sektoreko enpresetako adituengana joko du eta gaitasun-estandar zehatzei zein ebaluazio konplexuagoko zeharkako gaitasunen ziurtapenari erantzungo die. Azkenik, emandako ziurtagirien erregistroa egingo du.

Europako Batasuna norbanakoaren "txartel" bat sortze aldera bideratzen ari da, agiri pertsonal horretan jasotzeko egiaztatzen joaten diren ezaguera partzialak; ezaguera horiek lanbide-curriculum osatuko lukete. Horrek eskatzen du enpresak "heziketa prozesuko bazkideak" izatea, eta ez soilik prestatutako profesionalen eskatzaila.

Espero izatekoa da ikaskuntza "informala"ren ebaluazio-sistemak langileari irakaskuntza arautuaren esparruan ematen zaion fidagarritasun-maila lortzea. Gaia ez da erraza, eta Europako hainbat herrialdek dihardute proiektu berean.

Bukatzeko, Informazio eta Orientazio sarea aipatuko dugu. Izan ere funtsezko eginkizuna izango du gaitasuna eskuratzeko, ebaluatzeko eta ziurtatzeko eta bizitzan zehar gaitasun horiek hobetzeko aukeretan aholkatzerakoan; halaber, enplegu-mota jakin bat behar dutenetan eta bere kasu zehatzean osatu beharko lukeen heziketa-ibilbidean.

Hori da, oro har, Espainiako lanbide heziketa berriaren proiektua. Proiektua abian da dagoeneko eta autonomia erkidegoak barne hartzen ditu; erkidego horien artean Nafarroa gailentzen da, izan ere gai izan da Lanbide Heziketako Nafarroako Plana moldatzeko eta bere garapenean aurrerapen nabarmena egiteko.

Proiektu hau abian jarritz gure ekoizpen eta zerbitzu egituretako gaitasuna hobetzeko erronkari erantzuten zaio, azken batean egitura horiek baitira gure herrialdearen garapena eta ongizatearen oinarria.

Horretaz gain, Europako Batasunaren gomendioari ere erantzuten zaio. Izan ere, etengabeko ikaskuntza defendatzen du bitarteko gisa gizarte bat lortzeko non herritarrek parte hartzen duten, askeak diren eta gai diren bizitza ekonomiko eta sozialaren alderdi guztietan integrazeko, jakinda euren lanaren bitartez gizarte osoaren ongizatean laguntzen dutela.

IRAULTZA: LANBIDE HEZIKETAKO SISTEMA BERRIA.

José Ramón Zabala Urra. Soziologoa. UGTko Formazio idazkaria eta Nafarroako Lanbide Heziketako Kontseiluko kidea.

Kalifikazioei buruzko 5/2002 Lege Organikoak, Lanbide Heziketa Etengabearen azpi-sistema arautzen duen 1046/2003 Errege Dekretuak eta bere garapenak (04-3-1) eta Kalifikazioen Katalogo Nazionala zehazten duen 1128/2003 Errege Dekretuak arautegi nahikoaosatzen dute Lanbide Heziketaren sistema osoaren aldaketa "iraultzaile" baten aurrean gaudela baieztatzen.

Kalifikazioen Katalogo Nazionalak 2006 urterako amaituko du 500 bat kalifikazioen katalogoa, 25-26 lanbide-familiatan eta 5 mailatan ordenatua. Araudi horrek, hein handi batean Lisboan izandako Europako Kontseiluaren ebazpenen eta bere "Ikaskuntza Etengabearen Memoranduma"ren ondorio denak, ekoizpen eredu industrial honetatik ezaugarri oinarritutako gizarte eta ekonomia industriondoko batera jo nahi du. Xede nagusi horren oinarria kalitatezko ikaskuntza da, hezkuntza eta prestakuntza sustatzeko moduen aldaketa, kalifikazio-maila handiagoak lortzeko. Azken batean, prestatu beharrekoa edo prestakuntza etengabeko prozesuan dagoena ez da soilik eskola-adinean dagoen gaztea, baizik eta lan bizitzako edozein adin eta etaparako herritarra.

Zer da kalifikazioa?

Legeak berak honela definitzen du Kalifikazioa: "Enpleguan garrantzia duten lanbide gaitasunen batura, eta gaitasun horiek eskuratzeko bideak heziketa modularra, prestakuntza ez-formala, etengabea... eta lan eskarmen-tua izan daitezke". Katalogoak jasoko dituen 500 bat kalifikazioetako bakoitza -97 argitaratuta daude dagoeneko- kalifikazioa zehaztu eta kokatzen duen ekoizpen sistemaren azterketa konplexu eta osatua da, eta hezkuntza sistemako moduluak horiek menperatzeko beharrezkoak diren ezaugarriak zehazten dituzte. Profesionaltasun Ziurtagiriak eta LHko tituluak egiteko erabilitako materialetatik abiatzen da, eta Kalifikazioen Institutuak (INCUAL) kalifikazio bakoitzeko enplegu(ar)en lanbide-profila aztertu, egokitu, eguneratu eta osatu egiten du. Izan ditzakeen garapen-joerak proiektatzen ditu eta kalifikazioa, prestakuntza-prozesuak, esperientzia berriak eta abar garatzeko erabilitako teknologiak eta erabiliko direnak zehazten ditu. Oinarritzko material horien bitartez, sindikatu eta enpresa antolakuntzetako aditu-taldeek, teknologiek, sektoreko ekonomi analistek eta abarrek forma emango diote kalifikazioa zein lanbide-esparrutan garatuko den zehazteko. Hezkuntzako adituek enpleguarekin zerikusia duen unitate edo funtzio bakoitza dago-kion prestakuntza-edukiarekin lotzen dute.

Lanbide kalifikazio bakoitza ekoizpen jardueren esparru orokorrean kokatzen duen gaitasun orokor batek zehazten du, ekoizpen sektorearen edo sektoreen barruan sartzen da eta bere zeharkakotasuna edo berezitasuna zehazten da. Kalifikazio bakoitza unitate txikiagoetan banatzen da, gaitasun unitateetan, eta horietako bakoitza lanbide errealizazioetan; horiek ere unitate txikiagoetan banatzen dira. Horietako bakoitzak zerikusia du enpleguarekin eta heziketa modulu edo unitate bati loturik dago.

Enpleguko eginkizunak heziketa unitateekin lotzeko modu honek aukera ematen dio kalifikazio sistemari heziketa enplegura erabat egokitzeko. Era berean, kalifikazio bakoitza unitate txikiagoetan banatzea ezinbestekoa da Etengabeko Prestakuntzara egokitzeko; lan esperientzia baliozkotzea, gaitasunen balantzea egiteko aukera, langileak aukera izan dezan eskuratu eta baliozkotutako esperientziari bere kalifikazioaren aitortpen unibertsala emateko beharrezkoak diren prestakuntza unitateak bartzeko.

Gaitasuna

Martensek honela definitzen ditu gaitasunak: "gizabanakoen ezaugarrien multzoa, ezaugarri horiek ezaugarritik haratago doazelarik: trebetasunak, jarrerak, komunikazioa eta nortasuna". Definizio horrek kalifikazio batean batzen ditu ezaugarrien eta enpresek eskatutako funtzioetarako trebetasunen arteko ohiko banaketa". Gaitasunak lanbide jakin bat "betetzen jakitea" du ardatz, eta kalifikazioa, berriz, langileak dituen eta enpresa-mailan aitortzen zaizkion lanbide-gaitasun horien adierazpen formal eta gardena da, nazio eta Europa mailakoa. 1998an Kalifikazioen Gardentasunaren Foroa sortu zen, Europaren esparruan, eta bere bitartekoak: kreditu Gardentasunaren Europako Sistema eta Europass.

Gardentasunen Europako Sistema eta Europass.

Enpresa-korporazio handiek negoziazio-prozesuak hasi dituzte sindikatuekin beren giza baliabideak Gaitasunkako Kudeaketa Sistema izeneko formula berrietan antolatu eta ordenatzeko. Plantillak antolatzeko era berri hauek ondorio garrantzitsuak dituzte birziklatze prozesuetan, gaitasun eta eginkizunen antolakuntzan, soldatetan, etab.

Gaitasunaren edo lan eskarmentuaren ziurtagia

Hizkera errazean adierazita, gaitasunaren ziurtagiaren eskarmentua (egiten jakitea) aitortzen da kalifikazio baten zati baten edo guztiaren pare. Sistema honen oinarria kalifikazio bat gaitasun unitatetan edo lanbide-errealizazioetan banatzea eta zuzenean prestakuntza-eduki batekin lotzea da.

Horren ondorioz, bere lanbideak ohikoak dituen gaitasunetan adituak diren langile titulugabeen %50ek baino gehiagok aukera du bere "egiten jakite" hori kalifikazio bati dagokion atal teorikoaz baliozkotzeko. Gainerakoa kalifikazioa osatzen duten prestakuntza-osagarrien bidez baliozkotu ahal izango dute, eta ofizialki aitortua izan ahal izango da. Mekanismo honek, formalizatzen denean, aukera emango dio langileari bere auto-estimua handitzeko eta bere kalifikazio-maila hobetzeko; berdinkatzailea da, laneratzeko ahalmena sustatzen eta langabeziaren arriskutik babestu egiten baitu; eta aukera ematen die gure langileei nahi badute LHn euren ibilbideari ekitoko, eta, horretaz gain, negoziazio kolektiboan euren soldata hobetzeko.

Nafarroan bi esperientzia pilotu lantzen ari dira: ERA proiektua, Hezkuntzak kudeatua, eta E'pro Competences esperientzia, hau da, gaitasunen balantzerako test bat egiteko aukera ematen duen baliabide informatikoa.

Biak, bai ERA proiektua, bai E'pro Competences ere, proiektu esperimentalak dira eta beren azken xedea da, Europako beste eredu batzuekin batera, zehaztea bere kalifikazioaren aitortpen formala izan nahi duten langileen "lan eskarmentua nola baliozkotu", Kalifikazioen Katalogo Nazionalean zehaztuta baldin badago.

LANBIDE HEZIKETAREN ETORKIZUNA

Luis Sarriés Sanz, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Industri Soziologiako katedraduna.

Apirilaren 10ean zehazki berrogei urte beteko dira (1964-2004) Nafarroako Aldundiak lehenengo Industria Sustatzeko Plana abian jarri zuenetik. Bost urte geroago 7.000 enpresa baino gehiago sortuak ziren, industri poligono ezberdinetan banatuak. Nafarroako iraultza industrialak hasia zen. Bidezkoa izango da aitortzea iraultza horretako protagonista nagusietako bat langileak izan zirela. Lehenengo urteetan, industria nagusiek beren lan-

bide-eskolak sortu zituzten. Ikasleek enpresako bertako ikasgeletan ikasten zuten, eta lantegietan praktikak egiten zituzten ikasgelan irakasten zieten irakasle berekin. Gerora Aldundiaren eta zenbait erakunde erlijiosoren lanbide heziketako eskolak agertu ziren. Langile haietako asko Nafarroa isilki garapenera eta oparotasunera eramanez enpresa garrantzitsuetako produkzio arduradun eta areago produkzio buru eta agintariak izan dira.

Orain bigarren erronka daukagu: industri iraultzatik ezaugarren gizartera pasatzea. Esku-langilea, oinarritzko prestakuntza duena, iraganeko gauza da. Gaur egungo langileek, edozein mailatan kokatzen garela ere, ezauguera erabiltzen dute oinarritzko tresna gisa. Ez dira nahikoak norbanakoaren trebetasunak, ez eta indar fisikoa ere. Are gehiago, gutxien kualifikatutako langileen kasuan, alfabetizazio digitala egin behar dute, hau da, informatikaren funtsezko elementuak, kodeak eta programa errazak ezagutu eta ohitu barne-egitura txip eta zirkuituzkoa duten lantresna eta makinak erabiltzen, izan ere horiek zakarretarako utzi dituzte dagoeneko iraganeko makina zamatsu haiek.

Gure gazteak informazioaren eta komunikazioaren teknologia nagusi diren mundu batean bizi dira dagoeneko. Eskuko telefonoaren bidez komunikatzen dira, euren ordenagailuen bitartez lehiak egiten dituzte, saretik musika eta jokoak jaisten dituzte, gai dira on-line munduak eta errealtate birtualak birsortzeko aukera ematen dieten programetan sartzeko.

Zer lotura dute hausnarketa horiek etorkizuneko lanbide heziketarekin? Besterik gabe, etorkizuneko lanbide heziketa gaitasun teknologikoen garapenean oinarrituko da funtsean, gaitasun horiek lanbide-esparru batera bideratuak izango dira, eta bateratu egingo da ikasketa enpresetako praktikarekin. Teknologia horien ezauguera eta kontrol nahiko handia izateak erabakiko du lanbide garapena. Hortaz, behin betiko bazterrean uzten dugu lepo urdineko gisa ezagututako langilea, esku-langilea, duela 40 urte lurra iraultzeari eta abereak bazkatzeari utzi eta makina batean lan egitera pasatzen zena, eta lepo zuriko langile bihurtzen gara. Garai berri honetan lanbide heziketa profil hauen inguruan eratuko da.

- Irekia. Lanbide heziketa ez da lanbidean amaituko. Langile berriak ez du mugarik izango bere lanbide-garapenerako. Gaitasun berriak eskuratu ahal izango ditu etengabe, goi-mailako kurtsoen edo etengabeko prestakuntzaren bitartez. Enpresetan duen eskarmentuak, eta teknologia berri gero eta aurreratu eta konplexuagoekin duen harremanak, ezagutzen ez dituen bide berriak irekiko dizkiote. Bere prestakuntza areagotu beharra izango du.

- Malgua. Etorkizuna lanbide heziketako eredu oso malgukeratsua aurreikusten da. Gaitasun txikiagoa duela uste duen ikasleak ekoizpen eginkizun errazagoak hartuko ditu. Gaitasun berriak garatzen dituen neurrian mugarik

oroa

gabe aurreratu ahal izango du bere bizitzan zehar. Hau da, ikuspegi honetatik, lanbide heziketak ikastea gustuko ez duten gazteentzako esparru bat izateari uzten dio eta unibertsitate-mailaren sabaiak hausteko aukera ematen duen bitarteko bihurtzen da, hartara norbanakoa mugarik gabe garatzeko, on-line prestakuntza eta prestakuntza etengabea modu programatuan erabiliz.

- Ez baztertzaila. Gizon eta emakumezkoek antzeko ibilbideak egingo dituzte. Desagertu egingo da ikasketa batzuk gizonezkoenak eta beste batzuk emakumezkoenak izatea, gaitasunak lan merkatutako gaitasunak eskuratzearen onetan. Oraindik ere emakumezkoak informazioaren teknologietara gehiago hurbiltzea bultzatu beharko da gizartean, izan ere estatistikek erakusten dute informazioaren teknologiei loturiko ikasketak ez direla bereziki erakargarriak emakumezkoentzat.

- Duala. Erakundeek oro har, eta enpresek bereziki, konpromiso estuagoak hartu beharko dituzte praktiketako postuak sortzeko, etorkizuneko kontratazioetarako bide izango direnak. Enpresek bere plan estrategikoan (ez dago plan estrategikorik gabeko enpresa lehiakorrik) epe jakin batean, hau da, epe motz eta ertainera zein lanpostu sortzea aurreikusten duten diseinatzeko dute, eta ondorioz, etorkizunean izango dituzten langileen prestakuntzan nola inplikatu diren ere diseinatu beharko dute, lanbide heziketako ikastegiekin akordioak eginez.

- Egokitu. Lanbide heziketa etengabe egokitu beharko da teknologia berrietara eta lana antolatzeke era berrietara. Teknologia beren kultura eta zuzendaritza-estiloa dituzten erakundeetan ezartzen dira. Lanbide heziketako ikastegiekin oso sentiberak izan beharko dute teknologi eta antolakuntza berrikuntzekiko.

- E-Learning. On-line prestakuntza zentroak modu ikusga-

rrian hazten ikusiko ditugu. Zalantzarik ez dago gaur egungo lanbide heziketako ikastegiekin irakasteko bi bide izango dituztela: bertaratzeke eta on-line irakaskuntza, eta horrek aukera emango die ikasle-ohiei ikasketak zabaltzeko eta eguneratzeko eta birziklatzeko sistema bizia izateko.

- Kalitatearen aldeko apustua. Lanbide heziketako ikastegiekin beren irakaskuntzaren kalitatearen aldeko apustua egingo dute. Bertaratzeke heziketako ikasleak lortzeko - kezkarazten dituen gai bat da, prentsako iragarkietan ikus daitekeenez- eta e-learning sistemetako ikasleak lortzeko erabakigarria izango da beren eskaintzan bermatutako kalitatea. Ikastegiak arauen batean ziurtatuko dira, bai irakaskuntza tradizionalan, baita bertsio birtualetan ere. Horiek berek irakasle espezializatuak sortuko dituzte irakaskuntza-era berrietan.

- Europako homologazioa. Azkenean ikastegiekin kontuan izan beharko dute beren ikasleak Europako lan merkatu-ira irtengo direla. Titulazioek Europako homologatuak eta ezagutuak izan beharko dute. Baina gainera, ikasketak bukatu dituztenek praktikak egin beharko dituzte (sistema dualak funtzionatzeko badu) Espainiatik kanpoko enpresetan, beren esperientzia zabaltzeko eta Europako Bata-suneko langile kualifikatu gehienek ezagutu behar duten hizkuntzan ohitzeko.

Nafarroako industri iraultza hasi zenetik berrogei urte pasa ondoren - protagonistak landatik etorritako langileak ziren, hein handi batean-, ezagueraren iraultzari ekingo diogu. Guztiak pentsarazten du gure lanbide heziketa prest dagoela gure historiako etapa berria sustatzeko eta, era berean, heziketa hori gure gazteentzako aukera anitzeko esparru bilakatuko dela.

ersor

MANUEL IVORRA SEGURA JN.

Felipe Alcalde, "Salesianos" ikastetxeko zuzendaria.


Ivorra irakaslea -gustuko zuen horrela deitzea- 1911ko irailaren 19an jaio zen GORGAn (Alacant); garai hartan zeuden zailtasunen ondorioz, txikitatik ikasketak eta lana uztartu behar izan zituen bere nortasuna bideratuko zuen prozesuan, eta horrela, ekonomiaren, zorroztasunaren, lanaren balioaren eta zehaztasunaren zentzu garatu zituen, funtsezko ezaugarriak etorkizunean Nafarroako Lanbide Heziketarekiko hartu zuen konpromisorako.

Manuel Jn. gizon sentibera zen, bere garaira irekia, elkarriketa zalea, langilea, zorrotza, bere prestakuntzaz eta eguneratzeaz kezkatua, esker onekoa eta bizitzarako eta inguratzen zuten gertakizunetarako interesa zuena.

Tentu gogorrekoa zen eta jentio-uneak zituen, adeitsua

zen, heziera onekoa harremanetan, bere lagunaren lagun eta ezagutzen zituen pertsona eta erakundeetako fideltasun zentzu eztabaidea zuena.

Gertakizunei eta zientzia, teknika edo unean uneko historiari dagokienez egunean egoteko irrikak, batik bat hezikuntza eta Eskolari zegokienez, eta guztiak ikusteko modu kritiko fin eta gizale-getsua, denboraren



Manuel Ivorra jauna

Personaiak

garapenak forma berriak eta ohiko ikuspegi segurugoe-tatik urrun zeuden ikuspegiak eskatzen zituela argi ulert-zera bultzatzen zuten. Hortik dator bere konpromisoa LH moderno, dinamikoa, aurreratuarekiko eta etorkizun one-ko industri garapenerako gai den heziketarekiko.

Bere jakin-minak tartea aurkitzen zuen arlo ezberdinetako adituekin hizketan, eguneroko prentsan, Eskolaren munduari buruzko albisteetan, aurrerapen zientifikotek-noen ezagueran, politikan, ekonomian, gizarte-bizitzan, munduan eta bere garaiko historian etab. egunero izaten ziren gora-beheretan. Aseezina jakin-minean, beharra sumatu zuen teknologia berriak ikastetxeak kudeatzeko eskemetan sartzeko, betiere bere lanaren funtsa ahaztu gabe: kalitatezko Lanbide Heziketako hezkuntza zerbit-zua ematea gazteriari eta Nafarroako industriari.

Manuel jauna Nafarroara iristean Ofizio eta Arte Esko-letako ikuspegi artizanalarako batetik 1927az geroztik salestarrak garatzen ari ziren LH-k jauzi kualitatiboa egingo du, eragin eztabaidea izango duena esku-lan kualifikatu baten prestakuntzan Nafarroan industria behin betiko indartzeko.

Hezitzailea, apaiza eta industri peritua, Hezkuntza Administrazioarekiko hitzarmenen negoziaketak bere gain hartuko ditu, eta horietan beti gogoan izango du L H garaiko eskakizunetarako egokiak diren azpiegitura modernoek hornitzeko beharra. Berak adierazpen bate-an laburbiltzen zuen: "Eskolaren biziraupena, irakasle-entzako soldata baten segurtasuna, eta gure ikasleei Lan-bide Heziketa ona eskaintzea" LHk Hezkuntzaren <<ahai-de txiro>>tzat jotzen duen gizarte-giro batean.

Hori zen bere ikuspegia Lanbide Heziketaren hobekuntza eta eraginkortasunaren inguruko kezkan eta ikasle eta espezialitate bakoitzaren finantzaketari buruzko kezkan, baita Iparraldeko aldean Elizaren Lanbide Heziketako Idazkaritzako ikuskari lana egin zuenean ere.

Salestarrak, Nafarroako Lan Eskolak, IMENASA, harre-mana eta elkarriketa administrazioekin eta enpresekin, edozein ideologi aniztasunetik haratago, Manuel jaun-a-rengan aurkitu zuen hezkuntza eginkizunaren esperien-tzia, bere zintotasuna eta bere argitasuna hiru zutabe defendatzerakoan; zutabe horiek funtsezkoak izaten jarraitzen dute gaur egun Europako ingurunera eta eza-gueraren gizartera egokitutako lanbide heziketa gara-tze-ko: ikasleen eta beren familien interesak, irakasleenak, eta inbertsio etengabea egiteko aukerak, gure LH teknolo-giaren aurrerapenaren eskakizunekin bat etortzeko.


Erronka handia etorkizunerako asmoekin!

ANTONIO AROSTEGUI, JAUNA

"HAU NAHI DUT IRUÑEAREN TZAT"

Felipe Alcalde, "Salesianos" ikastetxeko zuzen-daria.

1920ko San Jose egunean, Almagro-Buenos Airesen (Argentina) nafar batek, Antonio Aróstegui jaunak, sales-tarrak ezagutu eta Iruñea bere sorlekuaz pentsatzen du. Topaketak konnotazio hauek izan zituen: Salestarren probintzialaren (José Vespignani jn.) festaren karietara,



Antonio Aróstegui jn., Eskolen sortzailea.

gau-emanaldi/omenaldia ospatu zuten. Ekitaldira ikaste-giko ikasleak eta zenbait gonbidatu bertaratu ziren. Horien artean Morea jauna; horrek, salestarren alde bali-a-bideak emateaz gain, saiatzeko zen era berean bere bazkideak eta ezagunak ere laguntza horietan parte hartzen has zitezen, eta horretarako ahalegintzen zen beraiek ere horrelako ekitaldietan izan zitezen, salestar giroa ezagutzen joateko.

Egun hartan, Morea jaunak salestarren etxeko giroa ezagutzeko gonbidatu zuena Antonio Arostegui jauna izan zen, Ariben (Nafarroa) jaioa, Morea jaunaren lagun eta bazkidea.

Ekitaldiko une batean, izan sumatu zuen giroarengatik, izan Morea jaunarekin izan zuen elkarriketarengatik, honela adierazi zuen: "Hau nahi dut Iruñerako". "Horre-lako eskola baten alde egiteko milioi bat pezeta emango nuke nik".

Probintzialak berehala iragarri zien bertaraturakoei pro-posamen hori. Ezusteko albiste horrek txalo-zaparrada handia eragin zuen. Ikasleek oihu egiten zuten: Gora Aróstegui jn.! Gora Iruñea!

Ekitaldia amaitutakoan Arostegui jauna Etexera iritsi eta albistea eman zien etxekoei, batez ere bere alaba Emilia andreari eta horren senar José Manuel Zubizarreta jau-nari.

Handik hilabete gutxira, Antonio jauna Nafarroara etorri zen eskola abian jartzeko interesak bultzatuta, horretara-ko milioi bat pezeta eman baitzuen.

Baina gauzak horrela izaten dira... historia beste modu batera izan zen.

Antonio jauna ez zen Nafarroara iritsi ere egin. Bat-bate-

an hil egin zen Madrilén, 1992ko abenduaren 31n. Ez zen Iruñera iritsi, eta ez zuen testamenturik utzi.

Bere seme-alabek, aitaren sentimenduekin bat eginda, aitat berak egiterik izan ez zuena egitea erabaki zuten. Emilia Aróstegui andreak eta José Manuel Zubizarreta jaunak Salestarren Kongregazioa sortzeko egindako eskritura Iruñean 1923ko irailaren 26an datatuta dago. Eskrituran milioi bat pezeta ematen dituzte lurak eroste-ko eta eraikina eraikitzeko.

Hona hemen klausula batzuk:

- "Escuelas Salesianas- Fundación Aróstegui" izena izango du.

-Izaera profesionala izango dute beti eskualdean ohikoenak diren lanbideetan.

-Salestarrak askeak dira zuzendaritzan, administrazioan eta ikasleen onarpenean.

-Doan onartu, barneko ikasle gisa, Garraldako bi mutil eta Aribeko bat.

Antonio Aróstegui jauna, bere alaba eta suhia pertsona probidentzialak izan ziren salestarrak Nafarroan izateko. Beti eskertu behar diegu euren bitartekotza.

LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEAK ENPRESARI GISA

Ildefonso Ibero, Erriberako Enpresarien Elkarteko (AER) lehendakaria

Beste garai batzuk ziren. Eta hemen elkartu ziren hezikuntzaz arduratu behar zutenak eta ezin zutenak eta beren konbentzimendu erlijioso eta sozialean oinarrituta Erriberan lanbide heziketaren beharraz jabetu zirenak. Izan ere gutxi ziren batxilergoa eta unibertsitate-ikasketak ikasten jarrai zezaketenak, eta asko gehienak ziren eskolatik laneko galtzarekin ateratzen zirenak.

Tuteran lanbide heziketaren hutsunea zegoen, urtetan ahalbide gutxien zutenentzako alternatiba izan dena, eta industrializazio xume baten hasiera antzematen zen. Eta aita jesuitak izan ziren erronka horri ekin ziotenak. Mendean Elizaren kontzientzia soziala eta intelektuala izan zirenek ez zuten zalantzarik izan interes profesionaleko eta justizia sozialeko proiektu bati ekiteko.

Urte gogorak izan ziren, hasiera konplexuak, baina, bai eskertuak! Zenbat hezi ote gara beren ikasgeletan. Zer egingo ote zuten askok, guk bezala, San Juan plazan San José Obrero eskolarako sarbide egiten zuten sei eskalera horietarako aukera izan ez bazuten. Eskalera horiek benetako tranpolin batekoak izan dira, erriberatar asko enpresaren mundura jauzi gaituena, oso lanbide-heziketa ona jasota, eta gure industri gizartearen zati handi bat estali du. Oraindik gogoan dut enpresek mekanika elektronikoa eta elektrizitatearen adarretako "ofizialtza" eta "maisutza" zikloak batzuetan bukatu ere gabe zuten ikasleak eskatzen zituztela; garai hartan izen hori zuten tituluek. Era berean, gogoan ditut Eskolako futbol taldeko kideak, eta atsegin handiz ikusten ditut jokalaria haietako batzuk gaur egun irakasleen klastroa osatzen dutela. Acarreta aitaren mutilak ginen, eta azala

beste ikastetxeetako zelaietan uzten genuen barruan genuelako ETI gure ikastetxearen izpiritua.

Eta izpiritu horrek eman zigun enpresek behar zuten prestakuntza eta heziketa. Eta horrela, 1968an, kide eta lagun talde bat ikastetxeko ikasgeletatik SANYOren lantegiko telebista eta irratiekin borrokan aritzera pasa ginen, nahiz eta ordurako, maisu industrial eta ofizial asko bere plantillako parte ziren dagoeneko, beste enpresa batzuetan bezala, hala nola, PIHER, INMETUSA, SKF, ROD AND HAAS, etab.

Horrek guztiak esan nahi du Eskola bere fruituak hartzen ari zela. Nafarroako hedapen garai hartan berak zuzendu zuen gure inguruko gizarte industrial, izan ere ikasleak erantzukizuneko postuak betetzera paseak ziren eta gure Tuteran urrats erabakigarriak ematen hasiak.

Utzidazue baieztapen hori argitu dezakeen zerbait gogorarazten: SANYOren Tuterako lantegiko zuzendari gisa jardun nuen azkeneko sei urteetan, hiru aginte-mailetan, zuzendaritza hasita aginte ertainetara (25 pertsona), denak ETiko ikasle ohiak ginen. Eta antzeko egoera zegoen gainerako enpresetan. Gaur egungo egoerari begirada bat emanez gero, seguru antzeko emaitzak izango ditugula. Horrek erakusten digu heziketa onaz gain Eskolan barneratze-gaitasun dinamiko eta irmoaz hornitzen irakasten zigutela, eta horrela erantzukizunak hartzeko gaitu gintuzten, gure espezialitateaz haratago; gaur, neure esperientzian oinarrituta, ziurtatu ahal dizuet gauza bera esaten jarrai dezakegula ikastetxe honetan prestakuntza jasotzen duten ikasleei dagokienez. Beharbada hori ere bada Nafarroan eta gure erkidegotik kanpo ere ikasle askok beren enpresa sortzea lortzearen arrazoia.

Hau paradoxa! Eskolako ikasketak gure garapen-oinarri ziren, eta, beste alde batetik, hizketaldi batzuk beste ikasketak-mota bat defendatzen zuten indar handiagoez.

Lanbide Heziketa Errauskine bezala jaio zen Espainian; European aldiz, arreta pribilegiatua eskaintzen zitzaion. Eta hori erakusten jarraitzen dute datuek: European Lanbide Heziketako ikasketak ikasleen %57k inguru egiten ditu, eta Espainian soilik %39k. Egia da hala ere Nafarroako egoera oso bestelakoa dela, ez gara Europako kopurura iristen baina Espainiako batez bestekotik hamar puntu gorago gaude. Seguru puntu horietako batzuk ETI, S.J. inzialez markatuak daudela.

Nolanahi ere, paradoxak jarraitzen du, lan egitea erabakitzen duten LHko tituludunak gehienez ere sei hilabete epean laneraten dira, eta langabezi zerrenden zati bat, zorritzarrez, zenbait unibertsitate-ikasketak egin dituztenek osatzen dute.

Gaur egun gauzak aldatzen ari dira. Ziur nago aita jesuitak zenbait urtez geroztik Nafarroako Gobernuaren erantzukizunpean den Eskolaren oraina atseginez eta etorkizuna itxaropenez ikusten dutela.



Ildefonso Ibero jauna, AER-ko lehendakaria

Adin nagusiko bihurtu den eskola baten oraina, eta adin nagusiko bihurtu da irakasle-klaustro on batekin, instalazio ezinhobeekin, ilusioz betetako ikasleekin, gizarte-egituraketa zuzenarekin eta industri eta enpresa munduarekiko uztardura gero eta hobearekin.

Eta azken atal honi dagokionez, ziurta diezazueket, lekuko pribilegiatua naiz. Erriberako Enpresarien Elkarteak (AER) -nire denboraren zati txo bat elkarte horretan ematen dut- LHko ikasketak laguntzeko apustua egin dugu. Eta egin dugu uste dugulako gero eta nazioartekoagoa den merkatu baten etorkizunerako kalitatea behar dela

eta hortaz, beharrezkoa dela gure langileak ondo prestatzea. Gaur egun oraindik ere dagoen eskaintza baino tituludun gehiago behar dituzte enpresek, eta denok behar dugu birkualifikazio etengabea.

Eta hori, eta ez beste bat, izan zen Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Kontseilaritzaren eta AERren arteko lankidetzak akordioa sinatzearren arrazoia (01-02-21), hau da, heziketa ikastegiak enpresei hurbil-tzea eta enpresak heziketa ikastegiei. Eta akordio hori honelako ekintzetan gauzatu zen:

- Ikasleek AER-ko enpresetan praktikak egitea erraztea.
- Ikasle eta irakasleek dagokien ikasketei loturiko enpresetako departamentuetara ikustaldiak egitea.
- Enpresei ikasle tituludunen zerrenda eta bete ditzaketen lanpostuen profila helaraztea.
- Irakasleek AER-n ematen diren ikastaroetan parte hartzea.
- Hezkuntza Departamentuarekin elkarlana, informazioa errazteko ea enpresek zein herrialde nahiago dituzten atzerrira joaten diren ikasleek praktikak egiteko.
- Enpresarien hitzaldiak LHko ikastetxeetan goi-mailako azken urteko ikasleei.

- "ETORKIZUNEN PROFESIONALAK" saria, Erriberako LHko 5 ikastegietako bakoitzeko proiektu hoberenei.

Baina etorkizunera itxaropenez begiratu daitekeela ere esan dizuet, ez alperrik; lanbide heziketa garatzeko Nafarroako Plana daukagu, Lanbide Heziketako Nafarroako Kontseiluak eginga, zalantzarik gabe ardura hartzen duena irakaskuntzaren kalitatea bermatzeko eta ikastetxeen kalitate hori lortzeko baliabideak emateko; eta, beste alde batetik, irakasle-klaustro bikaina dago, ikasleak maila akademikoan ez ezik giza-balorean ere hezteko.

Esaten dute hezkuntza dela herri baten aurrerapenaren oinarria. Hori horrela, ez genduke inoiz ahaztu beharko funtsezko euskarri bat dela Lanbide Heziketa, heziketa duina eta aukera aparta bere hautaketarako.

rents

- "El absentismo escolar alcanza cotas preocupantes". Gure nerabeak dira, dani markarrek batera, ikasturtean "piper" gehien egiten duten europarrak, eta gainera, ikasgelara joaten diren etatik ehuneko handi batek gogo eta poz handirik gabe egiten du. Diario de Navarra 2003/12/2
- "De la afición al hábito". FIRaren irakurzaletasunaren aldeko egitaraua Nafarroako 107 ikastetxe eta institututara iritsiko da ikasturte honetan. Diario de Noticias 2003/12/9.
- "121 millones de niños, sin escuela". Unicefek informatzen du eskolaratu gabeko adingabe gehienak neskak direla eta adierazten du hezkuntza dela munduko pobrezia desagerrarazteko estrategiarik hoberena. Diario de Navarra 2003/12/12.
- "Francia se dispone a prohibir el uso del velo islámico en la escuela pública". Chiracek asteazkenean lege bat

emango du argitara jakintsuen komitearen txostenaren ondoren. Diario de Navarra.2003/12/12.

- "Los profesores deben controlar a qué páginas de Internet acceden sus alumnos". Elkarriketa David Whittier Bostongo Unibertsitateko Hezkuntza irakaslearekin. Diario de Navarra 04/1/11.

- "No olvides la merienda". Adituen arabera, eguneko balioaren %20 edo 30 eman behar du. Diario escolar 04/1/20.

- "Los niños españoles pasan más tiempo viendo la televisión que en el colegio". Txosten ofizial batek azpimarratzen du haurren audientziarik handiena gaueko hamarretatik aurrera izaten dela. Diario de Noticias 04/1/23.

- "Herrikoa cumple 25 años en las aulas". Gurasoen elkartearen federazioak du gehiegia irakaskuntza publikoan. Diario de Navarra 04/1/26.

rents

- "Nuevo libro blanco de la educación audiovisual". Kataluniako Ikusentzunezkoen Kontseiluak haurrentzako ikusentzunezkoen eduki-produkzio eskasa salatu du, eta bere haserrea adierazi du haurrek telebista gehiegi ikusten dutelako. Diario de Noticias 04-1-27.
- "Superdotación y Ley de Calidad: ¿soluciones o problemas?". Javier Touron, European Council for High Ability-ko lehendakaria. Diario de Navarra 04-1-31.
- "Integración en las Aulas" Nafarroan bada Aniztasunean Laguntzeko Plana, eskola-laguntza bat horren beharra duen ikaslearentzat. Vivir Pamplona 04-2-4.
- La FP coge el tren del empleo cualificado. Estatuko Eskola Kontseiluaren Biltzarra.. Magisterio 04-2-4.
- "De padres a padres". Osasun eta Hezkuntza programa batek gurasoak prestatzen ditu bitartekatza egiteko eta droga-mendekotasunari aurrea hartzeari buruzko tailerrak antolatzeko beste gurasoentzat. Diario de Navarra 04-2-10.
- "Violencia escolar: un problema, distintas soluciones".

Magisterio 04-2-11.

- "Diversificación e itinerarios". Egilea ibilbideak defendatzen, izan ere bere iritziz funtzionatzen duen guztia dibertsifikadore da, eta bere buruari galdetzen dio ea eskola publikoa izango den kuartel zaharraren pentsamoldeari eusten, eta ea ulergarritasuna deituko geniokeen "uniformetasun antzu horri". Escuela Española 04-2-12.
- "Qué se enseña y se aprende aquí". El Entorno (I) Victor Manuel Arbelo. Diario de Navarra 04-2-16.
- "Padrinos de libros". Lodosako ikastetxeak kanpaina bati ekin dio berreskuratutako liburutegian bibliografi funtsa sortzeko. Diario de Noticias 04-2-17.
- "Qué se enseña y se aprende aquí". El Entorno (II) Victor Manuel Arbelo. Diario de Navarra 04-2-17.

iblio

- Evaluación de la Educación Primaria. Zerbitzu eta Ikuskaritza Teknikoko Zerbitzua. Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua.
- Cómo diseñar actividades de comprensión lectora. 3º ciclo de Primaria y 1º ciclo de la ESO. Ángel Sanz Moreno. Hezkuntza Departamentua.
- Evaluación de la Enseñanza y el Aprendizaje de la Lengua Inglesa. 2º y 4º de Educación Secundaria Obligatoria. Nafarroako Foru Komunitatea 2002. Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua.
- La atención a la diversidad en la Educación Secundaria Obligatoria. Marco organizativo, curricular y metodológico. Estudio comparativo a nivel europeo, Autonómico y local. MEC 2002.
- La Construcción en valores desde la familia y la escuela. Un estudio de los valores en Canarias. Kanarietako Eskola Kontseilua.
- Plan de Objetivos y Contenidos Prioritarios. Enseñanza Primaria y Educación Secundaria Obligatoria. Material Orientativo y de Ayuda a la Comunidad Educativa. CD. ROM. Kanarietako Eskola Kontseilua.
- Enseñar y aprender lenguas. Cuadernos de Pedagogía 330 zk. 2003ko abendua. Monografikoa.
- Dossier de Herramientas del equipo directivo. Organización y Gestión Educativa, 6 zk., 2003 azaroa-abendua.
- La fase inicial de la secuencia formativa. Aula de Innovación Educativa aldizkaria. 127 zk. 2003ko abendua.
- El aprendizaje. Nuevas aportaciones. Hezkuntzako aldizkaria. 2003ko iraila-abendua.
- Glosario Europea sobre Educación. Kudeaketa, segimendua, ebaluazioa eta gainbegiraketaren ardura duten

langileak. Eurydice.

- Ciudadanía y Educación. Hezkuntzako aldizkaria. 2003 aparteko zenbakia.
- "Revista Aula de innovación educativa" 128 zk. 2004ko urtarrila.
- En la búsqueda del sentido: diálogos
- A pensar también se aprende en la formación del profesorado
- Edgar Morin y los siete saberes necesarios para la educación del futuro.
- Propuesta didáctica: Evaluación figuroanalógica: una propuesta ética y creativa.
- Programas Internacionales. Programa Sócrates. Memoria 2001. MEC.
- Investigación educativa y organización escolar. "Organización y Gestión Educativa" aldizkaria 1 zk., 2004ko urtarril-otsaila.
- Madres, padres y escuela. Cuadernos de Pedagogía. 2004ko martxoa.
- Evaluación y Calidad de los centros educativos. M^a Antonia Casanova Rodríguez.
- La integración del alumnado inmigrante en el centro escolar. Orientaciones propuestas y experiencias. María José Montón Sales- GRAO
- El sistema educativo. Una mirada crítica. Praxis. Koord. José Gimeno Sacristán eta Jaume Carbonell
- Inmigración y Adolescencia. Los retos de la interculturalidad. Miguel Siguan. Paidós argitaletxea.
- Sistema estatal de indicadores de la educación. Proyecto 2004. INECSE.
- Los cambios educativos (2000-2004): nuevos desafíos, viejos remedios. Aula aldizkaria 130 zk. 2004 martxoa.
- **UNIBERTSITATERAKO SARBIDE PROBAREN**

- **UNIBERTSITATERAKO SARBIDE PROBAREN ARAUBIDEA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN: 469/2003 F.A., URRIAREN 23koa (NAO 146/2003 zk., 2003/11/17koa).**

- **NAFARROAKO GOBERNUKO EUSKARAREN GAITASUN AGIRIAREN TITULUA LORTZEKO AZTERKETEN ANTOLAKUNTZA ETA EGITURAREN ARAUBIDEA: 493/2003 F.A., AZAROAREN 20koa (NAO 151 zk., 2003/11/28koa).**

- **DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEEN EBALUAZIOA. 452/2003 F.A., URRIAREN 17koa (NAO 145 zk., 2003/11/14koa).**

F.A.k Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen ebaluazio, sustapen eta titulaziorako arauak ezartzen ditu 2003/2004 urterako.

Ebaluazioa jarraia, arau-emailea eta curriculumaren arlo eta gaien arabera berezitua izango da. Arlo eta gai ezberdinetako curriculumetan jasotako xede, eduki eta ebaluazio-irizpideen arabera egingo da. Helburuen artean etapako orokorrak eta arlo eta gai bakoitzeko bereziak jaso behar dira. Irizpideak 61/2002 Foru Dekretuak aldatutako 67/1993 FdN ezarrikoak izango dira. Ondorio horietarako, ziklo osorako adierazitako irizpideak egokitu egingo dira etapa osatzen duten bi ikasturteetako bakoitzerako berezita.

Ebaluazio Batzordea izango da, adostasun edo gehien-go absolutuz, prozesuaren garapenaren arduraduna; irakaslea bere arlo edo gaien; ebaluazio-saioaren koordinazio eta zuzendaritzako irakasle tutorea izango dira ebaluazio-prozesuaren arduradunak.

Ebaluazio prozesuak sei ebaluazio egitea eskatzen du: bi apartekoak (bat hasierakoa eta beste bat bukaerakoa irailean) eta ohiko lau ebaluazio (bat hiruhilero eta bat ekainaren bukaeran).

Azken ebaluazioak dira ikaslea hurrengo mailara igaroko den erabakitzeko unea. DBHko 4. Mailari dagokion azken ebaluazioan titulua emateko proposamena egingo da.

Ikaslea mailaz igotzea Ebaluazio Batzordeak erabakitzen du azken ebaluazioetako bakoitza bukatzean. Ekaineko azken ebaluazioan ikasleak ez badu inskribatuta dagoen arlo edo gairen batean kalifikazio positiboa eskuratzen, irailaren hasieran aparteko proba egin ahal izango du. Ikasleak maila bera errepikatu beharko du, osorik, azkeneko bi ebaluazioen ondoren (ekaina eta iraila) bi arlo edo gai baino gehiago gelditzen bazaizkio kalifikazio negatiboz. Ondorio horietarako, ezberdintzat jotzen dira mailakako edukiak dituzten ikasturte ezberdineko gaiak (adibidez: matematika I eta matematika II).

Maila bakoitza behin bakarrik errepika daiteke.

DBHko ikasketak bukatzean, helburuak bete baldin badira Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua eskuratuko da; horrek aukera ematen du Batxilergoa edo erdi-mailako Lanbide Heziketa berezia egiteko. Helburuak lortutzat jotzen dira etapako arlo edo gai guztiak kalifikazio positiboz gainditu baldin badira. Salbuespen gisa, helburuak lortu gabe ere titulua ematea proposatu ahal izango du Batzordeak, non eta gainditu ez diren arlo edo gaiak ez diren aidi berean Gaztelania eta Literatura eta Matematika, horiek oinarritzko gaitzat jotzen baitira. Ondorio horietarako oinarritzotzat jotzen dira, halaber, Euskal Hizkuntza eta Literatura.

Laugarren mailako ikasleek aipatutako bi ikasgaiak edo edozein arlo edo gaitatik hiru edo gehiago gainditzen ez badituzte, maila errepikatu beharko dute. Dagoeneko errepikatua baldin badute eta 18 urterik ez badute, Batzordeak erabakiko du curriculum aniztasuneko programetan jarraituko duten edo ez. (Horri buruz, ikus 225/1998 Foru Agindua, ekainaren 18koa (NAO, 95 zk., 1998/08/10ekoa).

Sustapen eta konpentsazio neurriak dituzten ikasleen segimendua apirilaren 2ko 90/1998 Foru Aginduan xedatutakoaren arabera egiten da (NAO, 59 zk., 1998/05/18koa).

Kalifikazio eskala honela osatuko da: Gutxiegi (0, 1, 2, 3, 4), Nahikoa (5), Ongi (6), Oso ongi (7, 8), Bikain (9, 10); eta parentesi artean dauden zenbaki baliokideren bat izango dute nahitaez.

De

Editor

MONOGRAFIKOA:
Lanbide Heziketa Nafarroan.

Lanbide Prestakuntza

Javier Marcotegui Ros, Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakaria.

Zorionez, jada jende gutxi pentsatzen du hezkuntza ez dela giza kapitalean egiten den inbertsioa, eta egin daitekeen inbertsiorik onena. Orain dela ez hainbeste urte, gutako batzuek tinko esan ohi genuen hezkuntza ez zela gastu arrunta, inbertsio gastua baizik, nahiz eta zehazten genuen (eta halaxe egiten dugu gaur egun ere) hezkuntzaren aplikazioa eraginkorra izatea bilatu behar dugula beti, batetik, gastu horrek parekorik ez duelako eta, bestetik, baliabide erabilgarriak mugatuak direlako. Denborak arrazoia eman digu.

Inbertsio honek mota askotako fruituak ematen ditu; eta fruitu edo emaitza horiek modu ezberdinetara neur daitezke. Integrazioa eta sozializazioa dakartza, intelektualki gutxien dohaindutakoei edo hezkuntza premia bereziak dituztenei bidezko prestakuntza ematen baitzaie. Solidaritatea eta kohesio soziala sortzen ditu, aukera berdintasunaren printzipioa aplikatzen baita. Ekonomiarentzat ere onuragarria da, amaierako ikasketetan edo lehen mailako, maila ertaineko edo goi mailako (unibertsitateko) lanbide heziketako ikasketetan gazteen gaitasunak erabat garatzea eta horiek ekoizpen sistemari modu eraginkorrean aplikatzea ahalbidetzen baitu.

Gizarteak egin dezakeen inbertsiorik onena, zalantzarik gabe, hezkuntzako gastua da, betiere dituen baliabideak mugatuak direla kontuan hartuta. Mendetan zehar, Nafarroak lanbide prestakuntzaren aldeko apustua egin du eta bere helburu politikoan arian beti lehentasuna eman dio biztanleen prestakuntzari. Lehen hezkuntzan inbertitzearen ondorioz, erkidegoko analfabetismo tasak Espainiako baxuenak izan dira beti eta haurren nahiz lehen hezkuntzako gaztekoen eskolatzeko maila %100ekoa izatera ere heldu da. Gauza bera gertatu zen Batxilergoarekin ere, zentro estataltak sortzen lagundu baitzuen; ezin ahaz dezakegu garai hartan hezkuntza sisteman irakaskuntza modalitate hau eskualde mailako azken urratsa zen, herrialde osoan 12 unibertsitate baino ez baitzeuden. Unibertsitateko hezkuntzaren alde ere egin zuen, ekimen ezberdinak abian jarrita: bere aurrekontuen bidez mantendu zituen

Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortu baino lehen zeuden unibertsitate eskolak; Nafarroako Unibertsitatea sortzeko eta garatzeko laguntza eman zuen; UNEDeko zentro elkartua mantendu zuen; eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortu zuen, eskualdeko legetan oinarrituta Espainian sortu den lehenengo unibertsitatea. Zalantzarik gabe, epe luzerako inbertsioaren etengabeko politika hau aplikatu delako heldu da Nafarroa Espainiako eskualdeen garapenean lehenengo lekura eta Europako batezbestekoaren gainetik egotera.

Bereziki aipatu nahi izan dut Nafarroak lanbide prestakuntzan duen interesa, horri esker langileek prestakuntza tekniko handia lortu baitute. Hauxe izan da zehazki, eta halaxe da oraindik ere, inbertsoreek gehien baloratzen dituzten erreferentzia eta alderdie-tako bat.

Gainera, amaierako ikasketak edo lanbide prestakuntzakoak (gizarte moderno eta dinamikoan unibertsitate ikasketak goi mailako lanbide prestakuntzat hartu beharko lirateke) tradizioz lanbide heziketako eskoletan eman izan dira. Gaur egun jada ez dira lehen hezkuntzaren eta unibertsitate hezkuntzaren artean dagoen fasea, eta ez dute gizarte egitura erreproduzitzen; lehen, langileek maila ertaineko edo behe mailako lanbide titulazioa izan ohi zuten eta buruzagiek, berriz, unibertsitate prestakuntza edo goi mailako lanbide prestakuntza. Jada gainditu den baloratzeko modu hartan, langileek bere seme-alabei unibertsitate prestakuntza eman nahi izaten zieten, gizartearen aurrera egiteko bide bakarra zelakoan, kontuan hartu gabe horretarako gai ote ziren edo ekoizpen egiturarako beharrezkoa ote zen. Garrantzitsuen titulua izatea zen, aurrera egin ahal izateko bermeztat ikusten baitzen.

Gurea bezalako gizarte batean (moderno, industrietakoa, zerbituetan oinarritua, dinamikoa, lehiakorra, eta hezkuntza askatasun, eraginkortasun, ekitate eta kohesio sozialaren printzipioen arteko oreka dela pentsatzen duena), unibertsitate titulak oso garrantzi gutxi du. Edozein titulu akademiko baino gehiago baloratzen da lanbide gaitasuna, alegia, une jakin batean ziurtatutako lanbide gaitasun eta kualifikazioak ekoizpen dinamiko eta aldakorren eskarierara egokitzeko norberak duen ahalmena. Gizarteak ez ditu titulak nahi, profesional trebeak baizik, zeregin eta eskakizun aldakorretara egokitzeko eta horien ardura hartzeko gai direnak. Horiek jasotzen dute aintzatespena eta horiek egiten dute gora.

Lanbide prestakuntzak berariazkoa eta osoa izan behar du; alegia, hasierakoa eta arautua izan behar du eta hiru mailak, hots, oinarriak, ertaina eta goi mailakoa (unibertsitatekoa) behar bezala orekatuta egon behar dute; langileei etengabeko prestakuntza eskaini behar zaie eta lanean hasiera doazenei, berriz, lanerakoa. Berariazko lanbide prestakuntza osoa da, hain zuzen, hezkuntza

s

eskolara